Sagardoaren lurraldea
El territorio de la sidra
Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga - Gipuzkoa
Tel: 00 34 943 550 575
info@sagardoarenlurraldea.eus
www.sagardoarenlurraldea.eus

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:
III. SAGARDO FORUM 2019-ren **aurkezpena**, sagarrari, sagarraren eratorriei eta sagardoaren kultura eta turismoari buruzko jardunaldi teknikoak, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa eta I. Nazioarteko Sagardo Azoka.

Data: 2019ko azaroak 14 (osteguna)

Ordua: 12:00.

Tokia:
Orona Ideo
Fundazioa eraikineko Auditorium-ean
Jauregi Bailara, s/n
20120 Hernani

Deskribapena:
Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, **2019ko azaroaren 21-25 III. Sagardo Forum**a ospatuko da, sagardoari lotutako ekoizle, profesional eta eragileak batuko dituen ekitaldia.

III. Sagardo Forumaren barruan, azaroaren 21-22an **jardunaldi teknikoak** osaptuko dira Hernaniko Orona Ideon. Bertako eta nazioarteko 21 profesionalek bere ezagutzaren berri emango dute hiru gairen inguruan ardaztuta: sagarra, sagardoa eta sagardotegiak baliabide turistiko gisa.

III. Sagardo Forumak **II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa** ere barne hartuko du, azaroaren 23an Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian ospatuko dena. Mundu osoko dastatzaile ospetsuek (BJCO Beer Judge Certification Program ziurtagiridun adituak, sommelierrak, enologoak, kazetariak eta ardo, garagardo nahiz gastronomia blogerrak, etab.) 9 kategoriatan sailkatutako hainbat sagardo mota dastatuko dituzte aurkeztutako sagardo onenak aukeratzeko. Oraingoz 11 herrialdetako sagardoek izena eman dute lehiketan: Espainia, AEB, Italia, Txekia, Alemania, Frantzia, Norvegia, Eslovakia, Luxenburgo, Herbehereak eta Erresuma Batua.

Berrikuntza gisa, aurten, III Sagardo Forumean **Nazioarteko Sagardo Azoka** ospatuko da azaroaren 24-25ean Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian. Azoka publiko orokorrari (azaroaren 24an) nahiz profesionalari (azaroaren 25ean) zabalik egongo da eta erakusketarien postuetan hainbat sagardo mota dastatzeko aukera izango da: izotzezko sagardoak, zaporetako sagardoak, apfelwein edo sagar ardoa, sagardo apardunak...

Egitaraua:
Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Astigarraga eta Hernaniko Udaletako ordezkari eta sagardogileen eskutik, III. Sagardo Forumaren barruan antolatutako hitzaldien egitaraua, II. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa eta I. Nazioarteko Sagardo Azoka aurkeztuko dira.

Asistentzia baieztatzea eskertzen dugu.

Informazio gehiagorako:
Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)
Telf: 943 550 575
e-maila: info@sagardoarenlurraldea.eus
webgunea: www.sagardoarenlurraldea.eus